



**Ane
Labaka
Mayoz**



ZEINENTZAT EGINAK?



Doinua:

Gaueko Entziklopedia Koxkorra
Zortziko txikia (7/6 silaba)

Gabonetan, jostailuen iragarkiz betetzen zaigu telebista eta etxeko postontzia. Baina neskei eta mutilei uzten al digute nahi dugunarekin jolasteko aukera?

1. Propagandak egiten gaitu ezberdinak Gabonetan markatzen dira bi erpinak; jostailu arros eta jostailu urdinak... Argi dago zein diren zeinentzat eginak.

2. Baloi bat desio du **Ane** pinpirinak, kotxe telegidatu, barku, hegazkinak, ezpata luze eta piraten ipuinak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

3. **Anerrek** nahi lituzke laguntzat panpinak, edabeak egiten dituzten sorginak, soinekodun printsesa edo erreginak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

4. **Jone**ren obsesio pieza arinak legoekin osatu nahian eraikinak, grua altuak eta hondeamakinak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

5. **Jonen** gustoko dira sukalde izkinak, trapu batez garbitzen ditu zipriztinak plastikozko lapiko eta zartaginak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

6. **Julek** belaunburuak nahi ditu zikinak, Supermanen marrazki bat duten patinak jantzita jaitsi ditzan aldapa haundinak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

7. **Julenek** pintatu nahi ditu ezpain finak, probatu makillaje hautsak ta lurrinak, pultsera forma hartu ohi duten buztinak... Baina hauek ez dira beretzat eginak.

8. Funtsean ez garenez horren ezberdinak morez zirriborratu ditzagun erpinak baloi arrosak eta panpina urdinak... Behingoz izan daitezen denontzat eginak.



OINEN BITXILOREA

Sortaren egitura



Ane Labakaren bertso sortan, **azpimarratu** ditzagun bertso bakoitzean azken puntua eta oinak. Zer ikusten duzue? Zer-nolako egitura eman dio Anek sortari? Zergatik egin ote du?



Oinen bitxilorea

Sortan agertzen diren oinekin, BITXILOREA osatuko dugu:

Erdian jarriko ditugu edozein gairentzat egoki etor daitezkeen oinak.

Hostoetan, multzoka jarriko ditugu oinak, eta elkarrekin lotura duten hitzak bilduko ditugu hosto bakoitzean. Zuek ikusi multzoak zeren arabera egin!

